

opusdei.org

IDOM fundazioak Rafael Escolaren biografia argitaratu du

Liburuak, bere ibilbide
profesionala gogoratuz gain,
Rafael Termes eta Opus Dei
nola ezagutu zituen azaltzen du

2004 Aza 3

Hona Opus Deiko kideen arteko
lehenetariko bat, beraren enpresak,
lanean eta pertsona gisa izan zuen
ibilbidearengatik, maitasunez
gogoratu eta ohoratua. Rafael Escola

Bartzelonan jaio zen 1919an. Industriako Ingeniaritza ikasi zuen (1940-1945) bere hirian bertan. Madrilera joan zen 1945ean, non “Edificios y Obras” enpresaren gerentzian jardun zuen 1957ra arte, urte horretan, Bilbon, IDOM ingeniartzako enpresari hasiera eman baitzion. Baita, “Asociación Española de Consultores de Ingeniería” elkartearen sortzailea eta lehen lehendakaria, eta Bilbo eta Donostiako Ingeniarien Goi-Eskolen irakaslea ere izan zen.

1995ean hil zen, oinorde gisa adiskide ugari eta enpresa bat utzirik, non gaur egun, 1.400 pertsonatik gora lan egiten duten.

Rafael Escola Fundazioak, -IDOM-ek sortua-, enpresaren sortzailearen helburu eta jarduerekin jarraitu nahi du, lan profesionalaren dimentsio tekniko eta etikoan. Fundazioak (www.rafaelescola-fund.org),

Ingeniaritza, Arkitektura,
Aholkularitza eta Ingurumeneko
arlotan sustatzen dituen jarduerak
finantzatu egiten ditu.

Nafarroako Unibertsitateko Tecnun
(www.tecnun.es), Escola
Fundazioarekin batera Rafael Escola
Katedraren bultzagileak dira, nora,
aurten, Charles Handy -London
Business School-aren sortzailea-
gonbidatu dutela Maisu-Eskola eman
dezan.

Rafael Termes eta Opus Dei ezagutu zituen 1940an

Biografía profesional eta pertsonala,
Fundazioak oraintsu aurkeztu duen
“Rafael Escola, ingeniero” liburuan
daude irakurgai. Gure pertsonaiaren
ibilbide pertsonala ulertzeko izan
ditzakeen interesarengatik, jarraian,
Opus Deirako bokazioa deskribatzen
duten lerrokada batzuk (36-39 orr.)
idazten ditugu:

Ingeniaritzako Eskolan, Escola eta Rafael Termes ikasmahaiko lagunak izanik, adiskide minak egin ziren. Eta Termesek, 1928an sorturiko Opus Deiko kide zenak, berak hautaturiko kristau bizitzaren bidez hitz egin zion Escola-ri.

1940ko maiatza hileko igandeen arteko batean, zera esan zidan: zurekin hitz egin nahiko nuke oso gai interesgarri batez. Elkarrekin atera ginen eta azaldu egin zidan lana, Opus Deiren arabera, santutu egiteko modua (...) Haren hitzek, sekula amestu egin gabeko ikuspegiak ireki zizkidaten.

Rafaeli bai gustatu zitzaizkiola Termesek adierazitako ideiak baina, hasiera batean, “teoria orokor” modura kontsideratu zituen, lan ondo eginak duen garrantziaz zuen iritzia berretsi egiten zutenak. Garai hartan, gainera, emaztegaia zuen eta ezkontzeko asmoa. Hil batzuk barru,

Termes-ek argitu zion, helburu haiek, Jainkoaganako eskaintza pertsonal modura eta lanbidea aldatu gabe bizi zitzakeela. Irailaren 3an, Rafaelek Opus Deiko kide egitea erabaki zuen. Eta hori izango zen, ordutik aurrera, bere familia, batetik, eta profesional eta kristau ona izateko laguntza lortuko zuen lekua, bestetik. “Dena oso arin, ia une batez, gertatu zen - gogoratu du Termesek-. Erabakitzekeo arintasun hori, haren izaerako ezaugarria zen. Oso zen abila eta, zerbait ikusi ahala, hara jotzen zuen”. Rafael Escola ez zen inoiz damutu harturiko erabakiaz; hori zela-eta 1994an, hil baino urte bete lehenago, zera idazteko aukera izan zuen:

Zoriontasuneko ia 50 urte daramazkit Opus Dein eta argi dut horixe dela Jainkoak niretzat gordeta zuen bidea.

Hala ere, 1940an, familiak arduraz jaso zuen berria, batez ere amak,

kexaturik baitzegoen Bartzelonan, unibertsitario gazteak erakartzen zituen talde batez zabalduriko zurrumurruengatik. Asko sufritu zuen Rafaelek horregatik:

Ba al dakizu zer den -ziotsan adiskide bati urte haietan- etxean nire ama eta anai-arrebak galbiderako doan hereje bat bezala ni begiratzea? Beti daude nire zain, denetan: susmagarria deritzote nik egindako guztia.

Une haietan Manolo zen, bere anaiagan nolabaiteko konfiantza kontserbatu eta “Rafa ezin da leku txar batean sartu” argudiatuz, besteen aurrean defendatu zuen bakarra. Zalantzak argitzeko, Manuela Andrea, Bartzelonako Gotzainarekin eta bertako jesulagunen Errektorea, Guim Aitarekin ere elkarrizketatu zen. Eta, haiengandiko azalpenei esker, lasaitu egin zen.

*Nire anai-arrebak saiatu ziren, saiatu,
“neure itsukeria” deitzen zutena
burutik kendu nezan. Oso urte
txarrak izan ziren guztiontzat baina,
poliki-poliki, egia argitu zen.*

Unibertsitateko lehen urteetan,
gurasoekin batera bizi izan zen
Rafael Muntaner kalea, 440an,
Bartzelonako goi-aldean. Opus Deik
Muntaner kalean bertan zuen etxera
lekualdatu zenean, María Teresa eta
Mercedes geratu ziren gurasoekin
batera bizi izaten. Rafael Madrilen
bizi zela, 1952an, Luis eta Manuela
bere gurasoak zahartzaroz hil ziren,
egun apur batzutako aldiaz. Luisek
79 urte zituen, Manuelak, 77.

Mercedesek, testamentuko hitzak
gogorarazten ditu, seme-alaba eta
bilobentzat altxor modura geratu
direnak: “(...) Guztiok maite zaituztet
berdin, nire eskerrona guztioi
didazuen maitasun eta
begiruneagatik... eta, guztioi ere,
barkamena eskatzen dizuet, inoiz

zorreko jarraibide egokia eman ez
edo kalteren bat sorrarazi badizuet”.

Gurasoen heriotzarekin batera
amaitu egin zen Rafael Escola-ren
aldi bat. Denboraldi hartan zehar,
Rafaelek, beragan jatorrizko zenbait
kualitate handiarazi zituen -
baikortasuna, sorgarritasuna, arreta,
laztasuna eta iraunkortasuna-
familiako giroa eta Gerratearen froga
izanik lagungarri. Hurrengo urteetan
lan profesionala izango zen kualitate
horiek guztiz bereganatzeko
bitartekoa, zenbateraino eta
nortasunaren funtsezko ezaugarriak
bihurtu egiteraino.